



## **JAUREGI TABERNA-JATETXEA ALOKATZEKO BALDINTZA**

### **EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PLEGUAK.**

#### **PROZEDURA: KONKURTSOA**

##### **1.- Xedea.**

Plegu hauen xedea, Gozategi Enparantza 9 zenbakidun eraikineko behe solairuan kokatuta dagoen Jauregi Taberna-Jatetxe jarduera eta bertako ondasun mobiliarioaren alokairua arautzea da.

##### **2.- Ondasunaren erabilera eta ardura.**

Esleipendunak, jarduera aurrera eramaterakoan, bertako instalakuntza eta ondasunen erabilera arduratsua eta egokia izan beharko du.

Esleipendunaren kargu izango dira, taberna eta sukaldeko ekipoen konponketak eta alokairu kontratuaren amaieran, aipatutako ondasunak, era egokian uztera behartuta dago. Horretarako, fidantza bat ezarriko da.

Maizterrak, instalakuntza eta azpiegiturak egoera onean bueltatu beharko ditu. Egoera hori Udal teknikariak baloratuko du.

##### **3.- Hizkuntza eskakizuna.**

Hizkuntza eskakizunaren inguruan, esleipendunari, gutxienez, Europar markoko erreferentzia den B-1-ko gaitasuna eskatuko zaio. Taberna-jatetxean lan egingo duen edo duten gainontzeko pertsonak ere, gutxienez bezeroei euskeraz zuzentzeko gaitasuna izan beharko dute. Maila horrek eskatzen du bezero batek euskeraz egiten ditun azalpen sinpleak ulertzeko gai izatea.

Kontratua esleitu aurretik, esleipendunak, ahalmen hori dutela egiaztatu beharko du.

Egiaztapen hori, ondorengo moduren batean egin dezake:

- a) Ahalmena egiaztatzen duen dokumentua/k aurkeztuz, edo
- b) Udalak prestatutako froga bat eginez (elkarrizketa izan daiteke).

##### **4.- Proposamenen aurkezpena.**

Interesdunek beraien proposamena kartazal batetan aurkeztu beharko dute honako dokumentuekin batera:

- a) Lizitatzaillearen N.A.N. edo sozietate bat izanez gero, sozietate osaketako eskrituraren kopia bat, Merkatal Errejistroan izena emanda.
- b) Lizitatzaillearen adierazpena, non ziurtatzen duen, ez dagoela Estatuko 9/2017 Kontratu Legeak ezarritako debekuen artean (I eranskina). Memoria. Lan esperientzia eta zerbitzuaren ezaugarriak jasoko duena.

Interesdunek beraien proposamenak Udal bulegoetan aurkeztuko dituzte, 15 laneguneko epean, goizeko 9etatik eguerdiko 2ak bitartean. Proposamenak aurkezteko epea, apirilaren 11tik maiatzaren 2a bitartean izango da. Deialdia Udaleko web orrian argitaratuko da.

Proposamenen irekiera, maiatzaren 3an eguerdiko 2tan izango da Udaletxean.

### **5.- Fidantza.**

Lehia bukatzerakoan eta kontratoaren sinadurarekin 2.000€-tako fidantza ezarriko da.

Kontratua bukatu aurretik zerbitzua emateari utziz gero, maizterrak fidantza galduko du, ondoren azaltzen den moduan:

- Bukaera epea baino 6 hilabete lehenagotik: 2.000€
- Bukaera epea baino 3 hilabete lehenagotik: 1.000€

Uzketarako arrazoi sendoak ematen badira –gaixotasuna, famili egoera bereziak edo antzekoak- Udalbatzak hala onartuz gero, maizterrak osorik jaso ahal izango du fidantza osoa.

### **6.- Esleipena.**

Proposamenak aztertu ondoren, mahai kontratatzaileak bere proposamena dagokion organoari luzatuko dio, hamabost egun naturaletako epean, honek behin betiko esleipena egin dezan.

Mahai kontratatzaileak aurkeztutako dokumentazioan gabeziak atzemanaz gero, gehienez ere, bost egun naturaleko epean, gabeziak ekiditzeko aukera eman diezaioke.

Behin betiko esleipena jakinerazterakoan, esleipendunari kontratua sinatze egunerako behin betiko fidantza jarri dezan eskatuko zaio, Udalak zehaztutako moduan.

### **7.- Prezioa.**

Kontratu honen prezioa 250 €-takoa da, BEZ kanpo. Lehenengo bi urtetan, prezio berdina mantenduko da. Kontratuaren luzapena gauzatuz gero, bigarren urtetik aurrera prezioari Euskal Autonomi Erkidegoko KPI-a gehituko zaio. Hortik aurrera, prezioa Euskal Autonomi Erkidegoko KPI-a gehituz joango da urtez urte.

Alokairuaren ordainketa, Udalak jakinerazitako moduan gauzatuko da.

### **8.- Kontratuaren iraupena.**

Kontratu honen iraupena urte betekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita. Bi aldeek kontratua amaitu aurretik hiru hilabete baino lehenago kontrakorik azaltzen ez badute idatziz, beste urtebetez luzatuko da eta hau amaitutakoan eta lehenengo urteko baldintzak berdinak erabiliz eta bi aldeetako inork hiru hilabete lehenago bestelakorik azaltzen ez badu, beste hiru urtez luzatuko da.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak kontratua bertan behera utziko balu, bostgarren puntuan adierazitakoa aplikagarri izango zaio.

### **9.- Kontratazio Mahaia.**

Kontratazioa Mahaiak aztertuko ditu proposamenak eta dagokion organoari luzatuko dio esleipen proposamena.

Mahaia ondoko kide hauekin osatuko da: Alkatea, mahaiburu (ordezkoa Alkateordea); Bokalak: udal Idazkari-kontuhartzaile akzidentala eta Udaleko zinegotzi bat. Idazkari lanetan, diru-bilketako arduraduna jardungo da.

### **10.- Balorazioa.**

Lehia baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

- 1.- Lan berdin edo antzekotan jardun izana/esperientzia:  
Kudeaketa, sukaldaritza edota zerbitzari lanetan. Urteko 5 puntu 45 punturarte
  
- 2.- Zerbitzuaren ezaugarriak: 55 punturarte
  - 2.1. Irekiera egunak: egun gehigarri bakoitzeko 5 puntu
  - 2.2. Ekintza edo ekitaldi gehigarriak 15 puntu
  - 2.3. Jatetxe zerbitzuaren kalitatea eta bestelako 25 puntu eskeintzak.

### **11.- Zerbitzuaren baldintzak.**

- a) Atsedeen eguna eta opor egunak ezik, gutxienez lau egun, asteburu edo jai egunak barne, ireki beharko da jatetxea ondorengo garaietan: Gabon oporrak, Aste Santu egunak eta udarako denboraldia (ekainaren 1etik iraila 15a bitartean).

- b) Urte barruan Udalak babestutako ekitaldi berezi egunetan, Txakoli Eguna, Asentzio Feria eguna, Mendi lasterketa, Landare azoka, herriko jaiak, kultur eta kirol ekintzak, irekiera eta itxiera ordutegiak egokitu beharko dira beharretara.

## **12.- Kontratua ez betetzeagatik zigorrak:**

Maizterrak egin ditzazken arau-haustek larriak edo arinak izan daitezke.

Arau-hauste larriak dira:

- 1.- Udalak maizterraren eskura utzitako baliabide materialen eta azpiegituraren erabilera okerra edo/eta desegokia egitea.
- 2.- Era batera edo bestera plegu hauetan ezarritako baldintzak ez betetzea edo kaltetzea, zerbitzuari kalte larriak sortuz.
- 3.- Plegu hauetan jasotako egutegia ez errespetatzea.
- 4.- Errentari dagozkioan bi ordainagiri jarraian ez ordaindu izana.

Arau-hauste arinak dira: beste egoera guztiak, zerbitzuaren kaltetan ematen direnak modu ez larrian.

Jarri daitezken zigorrak honako hauek izango dira:

- Arau-hauste larriengatik: 150 eta 3000€ arteko isunak. Kontratuaren amaiera ere ekar lezake, Udalak arau hauste larriak hauetakoren bat gutxienez, denboran zehar betetzen ez bada.
- Arau-hauste arinengatik: 150€ arteko isuna.

## **14.- Araudia.**

Lizitazio honi ezargarri izango zaio jarraian aipatutako araudia, espreski plegu hauetan adierazi ez diren arloetan:

- Udal Korporazioen Zerbitzu Erreglamentua
- 9/2017 RDL, azaroak 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituena.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Udal Erregimenaren oinarritzko legea.
- 781/86 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Udal Erregimenaren Testu Bateratua.

Arrendamendu kontratoari berriz, aplikagarri izango zaio 29/1994 Legea, hiri Arrendamenduena.

## **I. ERANSKINA**

Jaun/Andrea: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

Jaiotza data: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Sozietaren izena: \_\_\_\_\_

Euskerao titulua BAI  EZ

### **AZALTZEN DU:**

1.- Jauregi Taberna-Jatetxea alokairuan emateko lehiaketa arautuko duten Baldintza Ekonomiko-Administrarien Pleguak ezagutzen dituela.

2.- Indarrean dagoen legediaren arabera, Udal honekin kontratatzeko bateraezintasunik edo arazorik ez duela.

2024ko, .....ren.....an.

Sinadura